

OINARRIZKO IKERKETAKO ETA/EDO IKERKETA APLIKATUKO PROIEKTUAK (OIAP) EGITEKO LAGUNTZAK ETA IKERKETA ETA BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKORAKO (UEP)LAGUNTZAK 2018-2019

Kontaktua UPV/EHUn:

Ikertzaile erreferentziazko teknikariek jarri behar dute harremanetan dagokien arabera:	nagusiek beren behar harremanetan campusaren	BIZKAIKO CAMPUSA: convocatoriasbizkaia.dgi@ehu.eus
Beste kontaktu batzuk:	helbide	GIPUZKOAKO CAMPUSA: convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.eus
Beste kontaktu batzuk:	helbide	ARABAKO CAMPUSA: convocatoriasaraba.dgi@ehu.eus
Beste kontaktu batzuk:	helbide	DEIALDIEN ATALA: convocatorias.dgi@ehu.eus

Deialdiaren helburua:

Deialdiak bi laguntza-lerro ditu:

1. Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko Proiektuak (aurrerantzean **OIAP**):
 - a. 1. modalitatea: Erakunde bakarreko ikerketaldean proiektuak.
 - b. 2. modalitatea: Lankidetzan proiektuak, zeinetan parte hartzen duten erakunde ezberdinetako ikertzaile taldeek proiektu berean.
2. Ezagutza Unibertsitate Enpresetara eramateko ikerketa proiektuak (aurrerantzean **UEP**). Parte hartzen duten enpresek proiektuaren kostu osoaren % 10, gutxienez, finantzatu beharko dute, eskudirutan egindako ekarpenarekin.

Onuradunak:

Deialdi honetan parte hartzeko ondoko baldintza hauetako bat bete behar dute taldeek:

- a. Euskal Unibertsitate Sistemako taldeei zuzendutako 2015eko deialdian diru-laguntzarik jaso ez duten talde moduan egiaztatuta egotea.
- b. Euskal Unibertsitate Sistemako taldeei zuzendutako 2012ko diru-laguntzen deialdian A talde kontsolidatu moduan egiaztatuta egotea.

Proposatutako taldeak Eusko Jaurlaritzak aintzatetsitako taldearen osaera errespetatu behar du.

UEP lerroko enpresen ezaugarriak:

Enpresa parte-hartzaileak edo parte-hartzaileek, zeinek den-denek eduki behar duten beren **egoitza soziala EAEn** eta eskaeran parte hartu, ezin izango dute jaso diru-laguntzaren parterik, ez zuzenean ez zeharka. Beraz, proiektuaren esparruan, unibertsitate onuradunak ezin izango ditu horiek kontratatu lanak egiteko, eta enpresa horiek ezin izango dute hornigairik saldu, ezta geldialdi teknikoengatik kobratu ere. Aitzitik, eskudirutan egindako ekarpen ekonomikoez gain, honako hauek ipini beharko ditu enpresak: proiektuaren helburuak lortu ahal izateko behar diren giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak, horrek, izan ere, enpresak proiektuaren emaitzekiko duen interesa uzten baitu agerian. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatutako eragileak ez dira enpresatzat hartuko kasu horretan.

Deialdiari buruzko datu baliagarriak:

- 2018 deialdian UPV/EHUK aurkeztutako eskaeren kopurua: 40
- 2018 deialdian UPV/EHUK aurkeztutako eskaeren arrakasta-maila: % 30
- Proiektu bakoitzeko finantzatu daitekeen gehienezko kopurua: 50.000 euro
- 2018ko deialdian UPV/EHUren eskaerek lortutako batez besteko finantzaketa: 10.262 euro.

Aurrekontua lantzeko jarraibide orokorrak:

Langileen kontratazioa	<p>*Arau orokorra: Proiektuaren kargura kontratatuko den pertsonak ezin izango du aurretik UPV/EHUK kontratatutakoa izan.</p>
	<p>Doktoratu aurreko kontratuak: Deialdiaren 5.a.1. artikulua jasotakoaren arabera "Laguntzaileen kontzeptuan, lanaldi osoagatik -hau da, urtean 1.600 ordu- 18.200 euroko diru-laguntza jaso ahal izango da laguntzaile beraren lehenengo eta bigarren urteetarako...". Horrek esan nahi du diru-laguntza horretatik 18.200 € esleitu daitezkeela pertsona bat urte batez lanaldi osorako kontratatzeko. Hala ere, UPV/EHUren araudiaren arabera, mota horretako kontratuak 18.360 euroko kostu gordina dute 1. eta 2. urtean. Ikertzaile nagusiak beste sarrera batzuekin batera finantzatu beharko lituzke kontratu horiek.</p>
	<p>Doktoratu ondoko kontratuak: Deialdiak finkatzen duen kostua ez da bateragarria UPV/EHUren kostuekin. Beraz, ezin da aurrekontuan sartu.</p>

	Lizentziatu kategoriako obra edo zerbitzuko IK kontratuak: 18.200€/urteko gastua bakarrik onartzen da lanaldiaren % 100erako. Beraz, gainerakoa PES proiektuei eta/edo taldeei dagozkien organikoek finantzatu beharko lukete.
Ekipamenduaren erosketak	Proiektuaren kargura eskuratutako ekipamendu bakoitzak urteko 20.000 euro baino gutxiago balio beharko du, BEZ gabe. Deialdiak debekatu egiten du material informatiko inbentariagarria erostea.
Material suntsikorra	Kanpo geratzen da bulegoko material orokorraren finantzaketa.
Bidaiak	Proiektuaren jardunak burutu ahal izateko egiten direnak. Bidaia-gastuak onartuko dira, proiektua betearazteko azken urtean lortutako emaitzak erakusteko, baina ikertaldeko pertsona bakar batentzat soilik.
Bestelako gastu batzuk	Finantzatutako urteko aurrekontuaren % 5 gehienez, baldin eta proiektuaren helburuak garatzeko beharrezko direla justifikatzen bada.

Taldeen osaera:

Arau orokorrak:	
	<ul style="list-style-type: none"> - Ikertzaile nagusi bakoitzaren eskaera bat baino ez da onartuko lerro bakoitzeko. - Ikertzaile bakoitzak eskaera batean baino ezingo du parte hartu deialdiko lerro bakoitzeko. - Ezingo dute deialdi honetako lerroetan parte hartu deialdi honetako bi lerroekin parekagarriak diren aurreko deialdietan finantzatutako proiektuetan parte hartu duten edo parte hartzen ari diren ikertzaileek, baldin eta, eginbideak betetzeke izatearen ondorioz -emaitzak argitaratzea izan ezik-, eskaera aurkezteko unean oraindik euren jarduerak amaitu ez badituzte.

OIAP lerroan:	
Ikertzaile nagusia	<ul style="list-style-type: none"> - Doktore titulua izatea - UPV/EHUrekin kontratu bat izatea, proiektuaren iraunaldi osoa edo denbora tarte hori baino gehiago iraungo duena. <p><u>Eusko Jaurlaritzak ez du onartuko Ikertzaile Nagusientzako kontratua iraunarazteko konpromisorik.</u></p>
Gutxieneko taldea	- 3 pertsonak, gutxienez, osatuko dute taldea, eta horietatik 2k, gutxienez, doktore titulua eduki behar

	<p>dute horien artean egon behar du ikertzaile nagusiak .</p> <ul style="list-style-type: none"> – UPV/EHUrekin kontratua proiektuaren iraunaldi osorako. <p><u>Eusko Jaurlaritzak ez du onartuko gutxieneko taldea osatzen dutenentzako kontratua iraunarazteko konpromisorik.</u></p>
Ikertzaile taldea:	<ul style="list-style-type: none"> – Gradu titulua, Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitektura – Aurreikusitako kontratuaren iraunaldia proiektuan parte hartu duten denbora tarte baina laburragoa bada, kontratua iraunarazteko konpromiso bat eskatu beharko dute. <u>Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ikertzailearen egoera zehatzaren arabera aztertuko du konpromisoa luzatzeko aukera.</u>
Taldearen gutxieneko dedikazioa:	<p>Urteko 1.400 ordukoa izan beharko da, eta talde bakoitzeko ikertzaile nagusiak urteko 420 ordu eskaini beharko ditu, gutxienez.</p>

UEP lerroan:

Ezinbesteko baldintza da gutxienez UPV/EHUko ikertzaile-talde batek eta EAEn egoitza soziala duen enpresa bateko kideek parte hartzea proiektuan.

Gutxieneko taldea: 3 pertsona

- Ikertzaile nagusi bat, doktore titulua izango duena eta erakunde eskatzailearekin estatutupeko edo lan kontratuko lotura bat izan behar duena proiektuaren indarraldi osoan.
- Gainerako ikertzaileak, doktore titulua edo lizentziatura, arkitektura edo ingeniariaritza edo unibertsitateko gradua izan dezaketenak.

Erakunde parte-hartzaile bakoitzean baldintza hori betetzen duen ikertzaile bat gutxienez egon beharko da, eta erakundearen plantillakoa izan beharko du.

- Enpresetako langileak, programaren xede den teknologiaren arloan esperientzia egiaztatua dutenak eta aurreko paragrafoetan adierazitako kategorietan sartzen ez direnak.

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaera ondoko esteka honen bitartez bete behar da:

http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/ayuda_subvencion/2018/piba-pue-2019/

OIAP lerroko 2. modalitateko eskabideen kasuan, parte hartzen duten erakunde guztiak eta bakoitza horiek ere 3. artikuluan jasotako erakundeak izan behar dutenak izango dira eskatzaileak.

Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:

AZKEN EGUNA	IZAPIDEA
2018/12/17 8:00etan	<ul style="list-style-type: none"> – I. eranskina bidaltzea proposatutako langileen zerrendarekin Ikerketaren arloko Errektoreordetzak azter dezan. – Ikertzaile Nagusiak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena bidaltzea (barne dokumentua)
2019/01/09 8:00etan	<ul style="list-style-type: none"> – II. eranskina – eskaera eta Proiektuaren Memoria bidaltzea. – Parte hartuko duen ikertzaile bakoitzak sinatutako agiria (erantzukizunpeko adierazpena), 2019-2020 aldian aktibo dituen proiektuei zenbat denbora eskainiko dien, eta bakoitzak eskatutako proiektuari zenbat denbora eskainiko dion adieraziz.
2019/01/11	Deialdiaren bukaera

Ikertzaile nagusiaren campusaren arabera, eskatutako dokumentazioa aipatutako epearen barruan bidali beharko da dagokion helbidera:

- Bizkaiko campusa: convocatoriasbizkaia.dgi@ehu.eus
- Gipuzkoako campusa: convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.eus
- Arabako campusa: convocatoriasaraba.dgi@ehu.eus

Ezin izango da ziurtatu ordezkari legalaren sinadura lortuko denik, behin aurreko taulan aipatutako epeak igaro direnean.